

SANTA AGEDA

SANTA AGEDA, AGEDA
BIHAR DA SANTA AGEDA,
BIHAR DA SANTA AGEDA ETA,
GAUR BERE BEZPERA GAUA.

Ikastolako umetxuak
Oles egitera gatoz,
Aterik ate ohitura zaharrak
Aurten barritzeko asmoz.

SANTA AGEDA, AGEDA
BIHAR DA SANTA AGEDA,
BIHAR DA SANTA AGEDA ETA,
GAUR BERE BEZPERA GAUA.

Santa Ageda bezpera dogu
Euskal herriko eguna
Kale guztiak, kantuz pozteko
Aukeratu izan doguna

SANTA AGEDA, AGEDA....

Bereinkatua izan daitela,
Ikastolako jendia,
Bizi gaitezen danok bakean,
Santa Agedagaz batera.

SANTA AGEDA, AGEDA....

AITZALDUN DAIGUNA

Aintzaldun daigun Agate Deuna
bihar da ba Deun Agate
etxe honetan zorion hutsa
betiko euko al dabe.

Deun Agatena batzeko gatoz
ikastolako umetxoak
igaz lez hartu gagizun eta
zabaldu zuen sakela.

Orain bagoaz alde egitera
agur dautsugu gogotik
Agate Deuna bitarte dala
ez eizu izan dongerik... EUP!!